

## Bestelako Xedapenak

### KULTURA SAILA

2552

AGINDUA, 2011ko apirilaren 20koa, Kulturako sailburuarena, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (IKT deialdia).

Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio-ko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen. Dekretu horren 15. artikulua Kulturako Sailari, besteak beste, honako hauen inguruko egitekoak izendatu zizkion: hizkuntza politika eta euskararen sustapena.

Bestalde, 45/2011 Dekretuak, martxoaren 22koak, Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, honako zeregin hau ezarri zion Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bere 14.2.e) artikuluan (EHAA, martxoaren 25ekoa, 59. zk.): Euskararen Erabilpena Arautzen duen 10/1982 Oinarrizko Legea eta gainerako xedapen osagarriak modu egokian gara eta bete daitezzen begiratzea, betiere beste administrazio-organo batzuek bereziki esleituta dituzten egitekoak urratu gabe.

Halaber, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere egiten ditu Euskararen Aholku Batzordearen «Euskara 21, Itun Berritu Baterantz» izenburudun liburuan jasotako XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren lehentasunezko ildoak.

Jarriak dauzkan zereginak betetze aldera, Kultura Sailak, oraingo Agindu honen bitartez, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko 2011ko diru-laguntza deialdia arautzen du.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

**1. artikulua.**– Xedea.

Agindu honen xedea da, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak arautzea.

**2. artikulua.**– Epe-barrutia.

Laguntza deialdi honek 2011n burutuko diren egitasmoak baino ez ditu gogoan hartuko. Hori dela-

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

2552

ORDEN de 20 de abril de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión y se convocan subvenciones para la promoción, difusión y/o normalización del euskera en el ámbito de las tecnologías de la información y la comunicación (Convocatoria IKT).

El artículo 15 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, asignó al Departamento de Cultura, entre otras, las relativas a la política lingüística y la promoción del euskera.

Por otro lado, el artículo 14.2.e) del Decreto 45/2011, de 22 de marzo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura (BOPV de 25 de marzo, n.º 59) asigna el siguiente cometido a la Viceconsejería de Política Lingüística: velar por el adecuado desarrollo y aplicación de la Ley 10/1982, básica de normalización del uso del Euskera y demás disposiciones complementarias, sin perjuicio de las funciones que en tal sentido tengan específicamente asignados otros órganos administrativos.

Asimismo, la Viceconsejería de Política Lingüística asume las líneas de prioridad para la política lingüística de principios del siglo XXI formuladas por el Consejo Asesor del Euskera, recogidas en la publicación Euskara 21, Hacia un Pacto Renovado.

En cumplimiento del cometido que tiene asignado, mediante esta Orden el Departamento de Cultura regula la convocatoria de subvenciones correspondiente a 2011 para la promoción, difusión y/o normalización del euskera en el ámbito de las tecnologías de la información y la comunicación.

En su virtud,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto.

Es objeto de la presente Orden la regulación de la convocatoria de subvenciones destinadas a la promoción, difusión y/o normalización del euskera en el ámbito de las tecnologías de la información y la comunicación.

**Artículo 2.**– Ámbito temporal.

Solamente podrán acogerse a la presente convocatoria de subvenciones los proyectos que se materia-

eta, deialdi honetara biltzen diren egitasmoak gauzatzaren ondorioz eskaini, eman edota gizarteratu beharreko jardunak, zerbitzuak eta produktuak 2011ko abenduaren 31 baino lehen eskaini, eman edota gizarteratuko dira.

### 3. artikulua.— Onuradunak.

1.— Hauek dira laguntza-modalitate honen hartzaileak: Europar Batasuneko, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen edozein estatutako, edo beste edozein estatutako naziotasuna edo helbide soziala duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak, baldin eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute eta legalki eratuta badaude indarrean dagoen araudiaren arabera, eta Agindu honen 4. artikuluan aipaturiko egitasmoak burutzen badituzte.

Hala ere, kanpoan geldituko dira honako hauek:

a) Bere kapital gehiena publikoa duten entitate pribatuen eskabideak eta fundazio-ondarea edota gobernu —edo zuzendaritza— partaidetza nagusiki publikoa duten entitateen eskabideak.

b) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basquek hizkuntza normalkuntzarako sinatutako hitzarmen markoaren 2011ko diru-laguntzen deialdiaren onuradunak.

2.— Laguntza-deialdi honetatik kanpo geratzen dira ondoren adierazten diren estatu laguntza erregimenaren bidez legez kanpoko eta bateraezinak diren diru-laguntzak jaso dituzten erakundeak: Araba I, Araba II eta Araba III (CR 48/99, CR 49/99 eta CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II eta Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 eta CR 59/00) eta Bizkaia I, Bizkaia II eta Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99 eta CR 60/00) baldin eta jasotako diru-laguntza eta dagozkion interesak blokeatutako diru-kontu batera itzuli ez badituzte.

3.— Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak eman eta, kasua balitz, ordaindu ahal izateko.

4.— Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu zigor eta administrazioaren arloan diru-laguntza publikoak jasotzeko debekurik dutenak, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legezko debekuetan sartuta daudenak ere. Era berean, ezin izango da sexu arrazoiegatik diskriminaziorik egitearren zigortutakoa izan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

licen en el año 2011. Consecuentemente, todas las actividades, servicios y productos derivados de los proyectos acogidos a la convocatoria deberán ser materializados antes del 31 de diciembre de 2011.

### Artículo 3.— Beneficiarias.

1.— Esta modalidad de subvención está dirigida a todas aquellas personas físicas o jurídicas privadas, de nacionalidad o domicilio social en cualquier Estado miembro de la Unión Europea, o de los Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, o de terceros países que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar y estén constituidas legalmente conforme a la legislación vigente y desarrollen los proyectos que se mencionan en el artículo 4 de la presente Orden.

No obstante, quedan excluidas:

a) Las solicitudes formuladas por entidades privadas de capital mayoritariamente público y aquellas cuyo patrimonio fundacional o cuya participación en los órganos de gobierno o dirección sea mayoritariamente pública.

b) Las beneficiarias de la convocatoria correspondiente a 2011 de ayudas a la normalización lingüística desarrollada al amparo del convenio marco suscrito entre la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco y Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque.

2.— Quedan excluidas de esta convocatoria aquellas entidades que hayan percibido alguna de las ayudas ilegales e incompatibles de alguno de los regímenes de ayudas estatales siguientes: Araba I, Araba II y Araba III (CR 48/99, CR 49/99 y CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II y Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 y CR 59/00) y Bizkaia I, Bizkaia II, Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99 y CR 60/00), que no hayan procedido a su reembolso o depósito en una cuenta bloqueada junto con los intereses correspondientes).

3.— La concesión y, en su caso, el pago de la subvención a la entidad beneficiaria quedará condicionada a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma Vasca y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

4.— No podrán concurrir a la presente convocatoria de subvenciones aquellos que se hallan sancionados penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o están incurso en prohibición legal alguna que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

**4. artikulua.**– Diruz lagun daitezkeen egitasmoak eta kopuruak.

1.– Honako hauek dira laguntza-mota honetara bil daitezkeen egitasmoak eta multzo bakoitzerako aurreikusitako diru-laguntza kopurua:

1.1.– A multzoa (876.000 euro): euskarazko atari eta web guneak edo Interneterako euskarazko eduki berriak.

1.2.– B multzoa (700.000 euro): softwarea euskaraz sortzea edo eta euskarara lokalizatzea.

2.– Nolanahi ere, aurreko puntuan zehaztutakoari dagokionez, honako egitasmo hauek ez dute sarbiderik izango eta, ondorioz, kanpoan utziko dira:

a) Alderdi politikoen, hauteskudeetarako koalizioen eta sindikatuen egitasmoak.

b) Atari eta web gune pertsonalak.

c) Atari eta web gune puntualak (gertakizun, ekitaldi edo jardunaldi jakin baten inguruan propio antolatutakoak, euskararekin lotura zuzena izanik ere).

d) Demoak eta prototipoak.

e) Giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetasun-balioak errespetatzen ez dituzten egitasmoak eta, ondorioz, herritarrei iraingarri gerta dakiekeen ikur edo elementuak jasotzen dituztenak; halaber, herritarren duintasunari kalte egiten dieten edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen duten ikur edo elementuak jasotzen dituztenak.

f) Sexu bien arteko trataera-berdintasuna bermatzen ez duten egitasmoak.

g) Laguntza-mota honetan sarbiderik izan arren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutako egitasmoak.

h) Araubide orokorretan zein berezikoetan erabiltekoak izanik, ikasketa-plan edo curriculumarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten ikasmaterial inprimatu, ikus-entzunezko edo elektronikokoak gauzatze-ko asmoz aurreikusitako egitasmoak.

**5. artikulua.**– Baldintza bereziak.

Laguntza-mota honetan parte hartu ahal izateko honako baldintza berezi hauek behar dira:

1.– A multzoari dagokionez:

a) Euskarazko atari eta web guneek zerbitzu anizkoitzak eskaini beharko dituzte.

b) Euskarazko atari eta web guneek etengabe eguneratzeko plangintza eduki beharko dute, bai eta gunea ezagutarazteko proposamena ere.

**Artículo 4.**– Proyectos subvencionables y cuantía de la subvención.

1.– Podrán acogerse a esta modalidad de ayuda los siguientes proyectos con las siguientes cuantías de subvención:

1.1.– Grupo A (876.000 euros): portales y sitios web en euskera, y nuevos contenidos en euskera para Internet.

1.2.– Grupo B (700.000 euros): proyectos destinados a la localización y/o creación en euskera de software.

2.– En cualquier caso, no podrán acogerse a esta modalidad de subvenciones, y quedarán por tanto excluidos, los siguientes proyectos referentes a los grupos establecidos en el punto anterior:

a) Proyectos pertenecientes a partidos políticos, coaliciones electorales y sindicatos.

b) Portales y sitios web personales.

c) Portales y sitios web puntuales (organizados en torno a un acontecimiento, actividad o acto concreto, aun cuando esté relacionado directamente con el euskera).

d) Demos y prototipos.

e) Proyectos que no respeten los derechos humanos y los valores de convivencia entre personas, y, en consecuencia, incorporen símbolos o elementos que puedan resultar ofensivos para los ciudadanos y las ciudadanas, vulneren su dignidad o sugieran justificación de la violencia.

f) Proyectos que no garanticen la igualdad de trato entre los dos sexos.

g) Los proyectos que, a pesar de poder acogerse a esta modalidad de ayuda, hayan recibido subvención de la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

h) Proyectos destinados a desarrollar materiales didácticos impresos, audiovisuales o electrónicos que, siendo de aplicación en regímenes generales o especiales, tengan relación directa o indirecta con el plan de estudios o con el currículo escolar.

**Artículo 5.**– Requisitos específicos.

Para participar en la presente modalidad será necesario cumplir los siguientes requisitos específicos:

1.– Respecto al grupo A:

a) Los portales y sitios web en euskera deberán ofrecer servicios múltiples.

b) Los portales y sitios web en euskera deberán disponer de una planificación de actualización continua, así como una propuesta para dar a conocer el sitio web.

c) Euskarazko eduki berrien kasuan, horiek zabalteko edo ezagutarazteko proposamena zehaztuko da.

d) Web guneek agerian edo ezkutuan egongo den bisita-neurgailua eduki behar dute. Ezkutuan bada, entitate eskatzaileak izandako bisita-kopurua ikusi ahal izateko beharrezkoa den aukera teknikoa eman-godio Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari.

2.- B multzoko egitasmoek Interneten kokatzeko edo publiko zabalarentzako eskuragarri egoteko moduko plan jakina izan beharko dute nahitaez.

**6. artikulua.**– Diru-laguntzaren nondik norakoa, zertarakoa eta zenbatekoa.

1.– Laguntza-mota hau egitasmoen gauzatze-lanei zuzen-zuzenean egotzitako gastuei partzialki aurre egitera dator. Nolanahi ere, aurreko urteetan diruz lagundutako egitasmoen kasuan, berrikuntzak baino ez dira diruz lagunduko.

Honako gastu hauek ere kanpoan geldituko dira:

a) Patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsioak.

b) Aurretiaz euskara ez den beste hizkuntza batean garatutako atari edo web guneari eta softwareari dagozkion gastuak.

c) Edukiak eta zerbitzuak euskaraz ez ezik beste hizkuntza batzuetan ere dituzten atari edo web gunetan euskarazkoak bakarrik izango dira laguntza gai.

d) Ez dira diruz lagunduko testu-eduki periodistikoek dagozkien erredakzio-lanak.

e) Halaber, dagoeneko sortutako edukia sarean ipintzeko eskatzen denean diru-laguntza, egokitzapen kostua soilik hartuko da kontuan.

f) Egitasmoaren atzetako batean edukien itzulpen-lanak sartzen direnean, itzuli beharreko eduki kopurua zehaztu beharko du eskatzaileak. Beharrezkoa izanez gero, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak aurrekontuan egokitzapenak egin ahal izango ditu. Kontuan hartuko den tarifa Eusko Jaur-laritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak gaztelaniatik euskarara itzultzeko testu errazetan edo estandarretan aplikatzen duena izango da, KPI-agatik dagozkion igotera aplikatuta: 0,0774 euro hitzeko.

g) Ez dira gastutzat hartuko laguntza-deialdira aurkeztutako egitasmoaren gauzatzeari egozgarri ez zaizkion entitate eskatzailearen jardun orokorreko gastuak (langileria, gastu arrunta, e.a.).

2.– Egitasmo orok gastu- eta sarrera-aurrekontu orekatua izan behar du ezinbestean. Ondorioz, aurre-

c) En cuanto a los nuevos contenidos en euskera, se detallará la propuesta para difundir o dar a conocer dichos contenidos.

d) Los sitios web deberán disponer de un contador de visitas, visible u oculto. Si está oculto, la entidad solicitante deberá facilitar a la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística la opción técnica oportuna para poder conocer el número de visitas recibidas.

2.– Los proyectos del grupo B deberán disponer necesariamente de un plan específico para poder ser albergados en Internet o ser comercializados en un formato accesible al público en general.

**Artículo 6.**– Destino, objeto y cuantía de la subvención.

1.– La presente modalidad de ayuda está dirigida a sufragar parcialmente los gastos directamente imputables a los trabajos de ejecución de los diferentes proyectos. En cualquier caso, en el caso de proyectos subvencionados en años anteriores, sólo se subvencionarán las innovaciones.

Además, quedan excluidos los siguientes gastos:

a) Las inversiones realizadas en inmovilizado material patrimonial.

b) Los gastos relativos a portales o sitios web y software desarrollados previamente en otra lengua que no sea el euskera.

c) En los portales o sitios web que ofrezcan contenidos y servicios en otras lenguas además del euskera, la ayuda económica corresponderá exclusivamente al producto o servicio en euskera.

d) No se subvencionarán los trabajos de redacción correspondientes a contenidos periodísticos.

e) Asimismo, cuando se solicite subvención para colocar en la red un contenido ya creado, solamente se tendrá en cuenta el gasto de adaptación.

f) En el caso de que se requiera algún trabajo de traducción para la realización de alguna de las acciones del proyecto, la entidad solicitante deberá indicar el total de contenidos a traducir. En caso de ser necesario, la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística podrá adaptar el presupuesto. La tarifa que se tendrá en cuenta en este caso será la que aplica el Servicio Oficial de Traducción del Gobierno Vasco en traducciones de castellano a euskera de textos sencillos o estándares, aplicada la subida correspondiente al IPC: 0,0774 euros por término.

g) No se computarán como tales aquellos gastos (personal, gasto corriente, etc.) propios de la actividad general de la entidad solicitante no directamente imputables a la ejecución del proyecto concreto presentado a la convocatoria.

2.– Todo proyecto deberá tener necesariamente un presupuesto de gastos e ingresos equilibrado. Con-

kontu orekaturik ez duen egitasmoa kanpoan utziko da. Aurrekontuari dagokionez, bestelako gastuetarako, gehienez ere, gastu osoaren % 20 hartuko da kontuan, eta bestelako gastu horiek zein kontzepturi dagozkion zehaztuko da.

3.– Egitasmo orok gutxieneko finantzaketa-maila propioa izan behar du ezinbestean, % 40koa hain zuzen ere. Ondorioz, finantzaketa-maila horretara iristen ez den egitasmoa lehiaketatik kanpo utziko da.

4.– Aurreko puntuan aipaturiko finantzaketa propioa honako diru-sarrera hauez osatuta egongo da:

- a) Entitate-eskatzailearen diru-ekarpenak.
- b) Zerbitzu-salmentatik eskuratutakoak.
- c) Produktu-salmentatik eskuratutakoak.
- d) Publizitatetik eskuratutakoak.
- e) Entitate pribatuetatik jasotakoak.

5.– Defizitarioak diren egitasmoei bakarrik eman ahal izango zaie diru-laguntza. Hots, begiz jotako gastuak, eskatzaileak ezinbestean jarri beharreko finantzaketa propioarekin berdindu ezin dituzten egitasmoei. Ondorioz, defizitarioak ez diren egitasmoak lehiaketatik kanpo utziko dira.

6.– Egitasmo bakoitzari esleitutako diru-laguntza, ez da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatutakoa baino handiagoa izango. Gehienez ere, berrogei mila (40.000) euro izango da eta, gutxienez, bostehun (500) euro. Edozein modutan ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak orotara aurrekontuaren gaineko % 60ko diru-laguntza esleituko du, gehienez ere.

7.– Entitate bakoitzak ezingo ditu deialdi honetara sei egitasmo baino gehiago aurkeztu.

8.– Entitate bakoitzak ezingo ditu Agindu honetatik 120.000 euro baino gehiago eskuratu.

9.– Diru-laguntza bateragarria da edozein erakunde publiko zein pribatuk xede berberaz eman ditzakeenekin, beti ere, lagundutako egitasmoak gainfinantzaketarik ez badu. Agindu honen epe-barrutia amaitu eta 20. artikuluan finkatutako justifikazioari ekin eta gero gainfinantzaketarik gertatu dela ikusten bada, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, betiere 21. artikuluan zehaztutako bideari jarraituz. Murrizketa hori gainfinantzaketaren bestekoa izango da.

**7. artikulua.**– Diru-laguntzaren organo-kudeatzailea.

Deialdi honen kudeaketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziozako Zuzendaritzari dagokio.

**8. artikulua.**– Eskabideak aurkezteko epea.

Laguntza-deialdi honetan parte hartu nahi duen orok gehienez ere 6 eskabide-orri aurkezteko aukera

secuentemente, aquel proyecto que no tenga dicho presupuesto equilibrado quedará excluido. Para otros gastos, se tendrá en cuenta como máximo el 20% del gasto total, y se deberá especificar a qué conceptos corresponden dichos gastos.

3.– Todo proyecto deberá tener necesariamente un nivel mínimo de financiación propia del 40%. Consecuentemente, aquel proyecto que no alcance dicho nivel de financiación quedará excluido.

4.– La financiación propia citada en el punto anterior estará integrada por las aportaciones siguientes:

- a) Aportaciones económicas de la entidad solicitante.
- b) Las obtenidas mediante la venta de servicios.
- c) Las obtenidas mediante la venta de productos.
- d) Las obtenidas mediante publicidad.
- e) Las recibidas de entidades privadas.

5.– Únicamente podrán ser subvencionados aquellos proyectos que sean deficitarios, es decir, aquellos proyectos que no puedan cubrir los gastos previstos mediante su financiación propia obligatoria. Consecuentemente, aquellos proyectos que no sean deficitarios quedarán excluidos.

6.– La subvención adjudicada a cada proyecto en ningún caso superará el importe solicitado a la Viceconsejería de Política Lingüística. Se adjudicará hasta un máximo de cuarenta mil (40.000) euros y un mínimo de quinientos (500) euros. En cualquier caso, la Viceconsejería de Política Lingüística no concederá una subvención mayor al 60% del presupuesto.

7.– Cada entidad podrá presentar a esta convocatoria un máximo de seis proyectos.

8.– Cada entidad no podrá obtener de esta Orden más de 120.000 euros en total.

9.– La subvención es compatible con aquellas que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive la sobre financiación. En caso de que finalizada la vigencia de esta Orden y una vez llevada a cabo la justificación establecida en el artículo 20 se observe que existe sobre financiación, se reducirá el importe de la subvención siguiendo el procedimiento señalado en el artículo 21. Dicha reducción será equivalente a la sobre-financiación.

**Artículo 7.**– Órgano gestor de las ayudas.

La gestión de la presente convocatoria corresponderá a la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística de la Viceconsejería de Política Lingüística.

**Artículo 8.**– Plazo de presentación de solicitudes.

Toda entidad interesada en tomar parte en esta convocatoria podrá presentar un máximo de 6 impre-

izango du, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

**9. artikulua.**– Eskabide-orriaren eta gainerako agirien aurkezpena.

1.– Laguntza-mota honetara jo nahi duen eskatzaileak Agindu honen I. eranskinean jasotako eskabide-orria behar bezala bete behar du eta, adostasuna izenpetu ondoren, finkatutako epean eta moduan aurkeztu behar du.

2.– Eskabide-orriarekin batera honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu, ezinbestean, eskatzaileak:

a) Zerga-betebeharrak kitatuta dituela adierazten duen ziurtagiri eguneratua, gehienik ere sei (6) hilabete lehenago egindakoa eta organo eskumendunak emana.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak kitatuta dituela adierazten duen ziurtagiri eguneratua, gehienik ere sei (6) hilabete lehenago egindakoa eta organo eskumendunak emana. Agiri honek beharrezko diren zigilu eta sinadurak izan beharko ditu.

c) Burutu nahi den egitasmoa burutu ahal izateko jabego intelektualari loturiko elementuen ustiapen-eskubideak beharrezkoak direnean, eskubide horien jabe dela ziurtatuz pertsona fisikoak edo entitatearen izenean ari den legezko ordezkariak sinatutako zinpeko aitortpena.

Agiri horiez gain:

d) Pertsona fisikoa baldin bada:

d.1.– NANaren edo pasaportearen fotokopia.

d.2.– Ekonomi Jardueraren gaineko Zergari dago-kion izen-emate agiriaren fotokopia.

d.3.– Autonomoen Erregimenean edo, hala bada-gokio, dagokion lan-mutualitatean alta emanda dago-elako agiriaren fotokopia.

e) Pertsona juridikoa baldin bada:

e.1.– Entitate eskatzailearen legezko ordezkariaren NANaren edo pasaportearen fotokopia.

e.2.– Entitate eskatzailearen legezko ordezkariak lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratuaren fotokopia.

e.3.– IFZaren fotokopia.

e.4.– Entitate eskatzailearen eratze-eskrituraren fotokopia. Elkarteen kasuan, eratze-aktarena.

e.5.– Entitateko estatutuen fotokopia, edo entitate eskatzailearen jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen agiriarena.

El plazo de presentación de las solicitudes concluirá en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Artículo 9.**– Presentación del impreso de solicitud y del resto de la documentación.

1.– Las solicitantes que quieran acogerse a esta convocatoria de ayudas deberán presentar el impreso de solicitud que se adjunta en el anexo I de esta orden, debidamente cumplimentado y firmado.

2.– Las solicitantes de la ayuda deberán presentar junto al impreso de solicitud, necesariamente, los documentos siguientes:

a) Certificado actualizado, con una antigüedad no superior a seis (6) meses y expedido por el órgano competente, que acredite que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.

b) Certificado actualizado con una antigüedad no superior a seis (6) meses y expedido por el órgano competente, que acredite que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social. Este documento deberá tener los sellos y firmas que le correspondan.

c) En caso de que sean obligatorios los derechos de explotación de los elementos vinculados a la propiedad intelectual para poder desarrollar el proyecto en cuestión, declaración jurada firmada por la persona física o la persona representante que actúe en nombre de la entidad, acreditativa de la titularidad de dichos derechos.

Además de los documentos citados:

d) Cuando se trate de personas físicas:

d.1.– Fotocopia del DNI o pasaporte.

d.2.– Fotocopia del documento de inscripción en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

d.3.– Fotocopia del documento que acredite el alta en el Régimen de Autónomos o, en su caso, mutualidad profesional correspondiente.

e) Cuando se trate de personas jurídicas:

e.1.– Fotocopia del DNI o pasaporte del o de la representante legal de la entidad solicitante.

e.2.– Fotocopia del certificado actualizado que acredite la capacidad legal de la persona representante de la entidad solicitante.

e.3.– Fotocopia del NIF de la entidad.

e.4.– Fotocopia de la escritura de constitución de la entidad solicitante, o el del acta de constitución en el caso de las asociaciones.

e.5.– Fotocopia de los estatutos de la entidad o del documento en el que consten las normas por las que se regula su actividad.

e.6.– Eratze-eskritturak edota estatutuak dagozkion Erregistro Publikoan inskribatuta daudela egiaztatzen duten ziurtagirien fotokopiak.

Entitateak ez ditu aurkeztu behar izango e.4, e.5 eta e.6 idatzi-zatietan adierazitako agirien fotokopiak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Erregistroan dagoen fundazioa edo elkarte bada. Izan ere, kasu honetan Administrazio ofizioz egiaztatu ahal izango du Erregistroan dagoela, eta nahikoa izango da entitate eskatzaileak hori adieraztea I. eranskinean.

Zerga-betebehar zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienez, jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

3.– Aurreko puntuan zehaztutako 2.d) eta 2.e) ataletako agirietakoren bat edo gehiago Administrazio honetan lehenago ere aurkeztua izan bada eta indarrean jarraitzen badu, eskatzaileak Agindu honi lotutako III. eranskina bete eta aurkez dezake agiri horien ordez.

4.– Eskatzaileak eskabide-orri bat baino gehiago aurkezten duenean, erantsi beharreko dokumentazioa, artikuluko honetako 2.c) puntuan adierazitakoa izan ezik, bakarra izan daiteke eskabide-orri guztientzat.

5.– Pertsona fisiko edota juridiko pribatu batek baino gehiagok gauzatzekoa den egitasmoaren kasuan, elkartutako pertsona fisiko edota juridiko pribatuen ordezkari bakar bat izendatuko da diru-laguntzaren inguruko betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa emanaz. Ahalmena izango du, halaber, guztiak ordezkatuz eskabidea aurkezteko. Eskabidea egiterakoan argi eta garbi zehaztu beharko dira pertsona fisiko edota juridiko horietako bakoitzaren nortasuna, ardura eta egitekoa egitasmoaren baitan. Era berean, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Aipatu ordezkariak ahalmena duela adierazten duen agiria.

b) Elkarrekin arituko diren pertsona fisiko edota juridiko pribatu bakoitzak aurrekontuaren atalean daukan parte-hartzea, hau da, I. eranskinaren 2. atalean datorren adierazitako aurrekontua betetzerakoan, zehaztu beharko da bakoitzaren parte-hartzea, bai gastu-aurrekontuan, bai eta sarrera-aurrekontuan ere.

c) Elkarrekin arituko diren pertsona fisiko edota juridiko pribatu bakoitzari dagozkion agiriak (9.2 artikuluan zehaztutakoak).

d) Lankidetzaren terminoak jasoko dituen agiria. Agiri horrek elkartutako pertsona fisiko edota juridi-

e.6.– Fotocopia del certificado de la inscripción en el Registro Público que corresponda, tanto de de la escritura de constitución como de los estatutos de la entidad.

La entidad solicitante no tendrá obligación de presentar los documentos solicitados en los apartados e.4, e.5 y e.6 en el caso de que se trate de alguna fundación o asociación que figure en el Registro de la Administración General de la Comunidad Autónoma Vasca. De hecho, en ese caso la Administración podrá comprobar de oficio que la entidad figura en dicho Registro. Para ello, será suficiente con que la entidad solicitante indique esta circunstancia en el anexo I.

En cuanto al cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, la solicitante deberá aportar cuantas certificaciones sobre este extremo se le exijan durante el procedimiento.

3.– Cuando con anterioridad se hayan presentado en esta Administración uno o más de los documentos mencionados en los apartados 2.d) y 2.e) del punto anterior, la solicitante deberá cumplimentar el anexo III que acompaña a esta Orden.

4.– En caso de que la entidad solicitante presente más de un impreso de solicitud, la documentación que se adjunte podrá ser única para todas las solicitudes, excepto la señalada en el apartado 2.c de este artículo.

5.– En el caso de proyectos que se desarrollen conjuntamente por más de una persona física o jurídica privada, se designará a un único representante de las personas físicas o jurídicas privadas asociadas, otorgándosele para ello el poder suficiente para el cumplimiento de las obligaciones relativas a las subvenciones. Así mismo tendrá poder para presentar la solicitud en representación de todos los demás. A la hora de realizar la solicitud se deberá manifestar claramente la personalidad, responsabilidad y funciones de cada persona física o jurídica en el proyecto. Asimismo, se deberán presentar:

a) Documento que acredite el poder del representante.

b) La aportación de cada una de las personas físicas o jurídicas privadas que actúan conjuntamente en el apartado de presupuestario. Para ello, al cumplimentar el apartado 2 del anexo I (presupuesto declarado), se deberá especificar la aportación de cada una de ellas tanto en el apartado de gastos como en el de ingresos.

c) Documentación de cada una de las personas físicas o jurídicas privadas que actúan conjuntamente (determinadas en el artículo 9.2).

d) Documento en el que consten los términos de dicha cooperación. El documento estará firmado por

ko pribatu bakoitzeko legezko ordezkariak izenpetua egon beharko du.

**10. artikulua.**– Eskabide-orria eta agiriak aurkezteko modua.

1.– Eskabide-orria, pertsona fisikoak edo entitate eskatzailearen legezko ordezkariak sinatuta egon beharko duena, laguntza-mota bakoitzean eskatutako agiriarekin batera aurkeztu beharko da. Era berean, aurretiaz Eusko Jaurlaritzatik ordainketaren bat hartu ez duen eskatzaileak Agindu honen II.A. eranskina bete eta aurkeztu beharko du. Egoitza sozialari edo banketxe-datuei dagokienez, aurretiaz Eusko Jaurlaritzari jakinarazitako daturen bat aldatu nahi izanez gero, eskatzaileak eranskin bera bete eta aurkeztu behar du (II.A eranskina).

2.– Eskabide-orria eta agiriak Hizkuntza Politika-rako sailburuordeari zuzenduko zaizkio, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 38.4 artikuluan aurre ikusitako tokietakoren batean aurkeztuko dira.

a) Eskuz esku egin nahi izanez gero, honako toki hauetakoren batean aurkeztuko dira:

– Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

– Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Kulturako Lurralde Unitatea, Gran Vía, 85; 48011 Bilbao.

– Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Kulturako Lurralde Unitatea, Andia kalea, 13; 20008 Donostia-San Sebastián.

– 72/2008 Dekretuak, apirilaren 29koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak, zehaztutako edozein (EHAA, 2008ko maiatzaren 30ekoa, 102. zk.).

b) Postaz egin nahi izanez gero, honako helbide honetara bidali beharko dira eskabide-orria eta agiriak: Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz. Bide hori aukeratzekotan, eskabide-orria kartazal irekian aurkeztu beharko da posta-bulegoan, posta-zerbitzuko langileak, ziurtapeña egin baino lehen, data eta zigilua jarri diezazkion eskabide-orrian bertan.

**11. artikulua.**– Aurkeztutako eskabidean eginiako akatsen zuzenketa.

la persona que representa legalmente a cada una de las personas físicas o jurídicas privadas asociadas, y a efectos del cumplimiento de las obligaciones relativas a las subvenciones.

**Artículo 10.**– Modo de presentación de las solicitudes y de la documentación.

1.– El impreso de solicitud, firmado por la persona física o la persona que representa legalmente a la entidad solicitante, deberá ser presentado junto a la documentación señalada para cada modalidad de ayuda. Asimismo, la solicitante que con anterioridad no hubiera recibido subvención alguna del Gobierno Vasco deberá cumplimentar adecuadamente y presentar el anexo II.A de la presente Orden. En el supuesto de que la solicitante desee modificar algún dato relativo al domicilio social o cuenta bancaria comunicado con anterioridad al Gobierno Vasco deberá cumplimentar el mismo anexo (II.A).

2.– El impreso de solicitud y la documentación estarán dirigidos a la Viceconsejera de Política Lingüística y se deberán presentar en alguno de los lugares previstos en el artículo 38.4 de Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

a) En caso de hacerlo personalmente, se presentarán en alguno de los siguientes puntos:

– Gobierno Vasco, Departamento de Cultura, Viceconsejería de Política Lingüística, c/ Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

– Gobierno Vasco, Unidad Territorial de Cultura de Bizkaia, Gran Vía, 85; 48011 Bilbao.

– Gobierno Vasco, Unidad Territorial de Cultura de Gipuzkoa, c/ Andia, 13; 20008 Donostia-San Sebastián.

– En cualquiera de los reseñados en el Decreto 72/2008, de 29 de abril, de creación, organización y funcionamiento de los registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos (BOPV de 30 de mayo de 2008, n.º 102).

b) En caso de hacerlo a través de Correos, el impreso de solicitud y la documentación se remitirán a la siguiente dirección postal: Gobierno Vasco, Departamento de Cultura, Viceconsejería de Política Lingüística, c/ Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz. La solicitante que desee utilizar la presente vía de entrega deberá presentar al empleado o empleada de correos el impreso de solicitud en sobre abierto, al objeto de que aquél o aquella estampe la fecha y el sello en el propio impreso antes de certificar el envío.

**Artículo 11.**– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.



Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

**12. artikulua.**– Esleipen-prozedura.

1.– Zeregin horretarako berariaz eraturako Balorazio-batzordeak eskabideei buruzko ebazpen-proposamena landu eta diruzko zenbatekoak finkatze aldera, honako urrats hauek emango ditu, hurrenez hurren:

1.1.– Adierazitako aurrekontuari eta eskatutako diru-laguntzari dagokienean,

a) Eskabide-orrian adierazitako gastu-aurrekontua eta eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa hartuko ditu abiapuntutzat.

b) 6. artikuluan finkatutakoaren haritik, honako hau ikusiko da: laguntza-deialdira aurkeztutako egitasmoaren gauzatzeari zuzenean eta bakarrik egozgarri zaizkion gastuak baino ez daudela jasota adierazitako gastu-aurrekontuan. Ez dira gastuzat hartuko laguntza-deialdira aurkeztutako egitasmoaren gauzatzeari egozgarri ez zaizkion entitate eskatzailearen jardun orokorreko gastuak (langileria, gastu arrunta, e.a.) Halaber, aurreko urteetan diruz lagundutako egitasmoak direnean, berrikuntzak baino ez dira diruz lagunduko.

c) Aurreko atalean aipaturiko kontraste-lanaren ondorioz eskatzaileak adierazitako gastu-aurrekontuari aldaketaren bat egin behar izatekotan, beste horrenbesteko aldaketa egingo zaie adierazitako sarrera-aurrekontuari eta eskatutako diru-laguntzari, beti ere gastu-aurrekontua aldatu den proportzio berean. Modu horretan, aurrekontu onartua finkatuko da. Horrelakoetan, diru-laguntza kalkulatzeko orduan, aurrekontu onartua eta eskatutako diru-laguntza onartua hartuko dira erreferentzia-oinarritzat, baita eskabide-orrian zehaztutako finantzaketa-maila propioa ere.

1.2.– Puntuak dagokienean,

a) Esleipen-prozedurari ekin aurretik, balorazio-fasera pasatako egitasmoak baloratuko dira, Agindu honen 13. artikuluan finkatutako irizpideen arabera.

b) Egitasmoek, aurrera egitekotan, jaso litezkeen puntuetatik hirurogeita hamar (70) puntu edo hortik gora lortu beharko dituzte. Ondorioz, esandako gutxieneko puntuazio horretatik beherako puntuazioa

En el supuesto de que se apreciase la falta de la documentación requerida para la admisión a trámite de la solicitud o defectos formales en aquella, así como en el supuesto de que se observaran defectos en la documentación alegada para su valoración, se le requerirá a la persona interesada para que, en el plazo de diez (10) días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición o decaída en su derecho al trámite, previa resolución.

**Artículo 12.**– Procedimiento de adjudicación.

1.– Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvención y de establecer los importes de las mismas, la Comisión de Valoración establecida al efecto procederá, paso a paso, de la siguiente manera:

1.1.– Respecto al presupuesto declarado y la subvención solicitada,

a) Se tomará como punto de partida el presupuesto de gasto declarado y el importe de la subvención solicitada consignado en el impreso de solicitud.

b) De conformidad con lo establecido en el artículo 6, se verificará que el presupuesto de gasto declarado únicamente contempla los gastos directa y exclusivamente imputables a la ejecución del proyecto presentado a la convocatoria. No se computarán como tales aquellos gastos (personal, gasto corriente, etc.) propios de la actividad general de la entidad solicitante no directamente imputables a la ejecución del proyecto concreto presentado a la convocatoria. Asimismo, en el caso de proyectos subvencionados en años anteriores, sólo se subvencionarán las innovaciones.

c) En aquellos casos en que del contraste referido en el apartado anterior hubiese que llevar a cabo alguna modificación en el presupuesto de gasto declarado por la solicitante, se procederá asimismo a modificar el presupuesto de ingresos declarado así como el importe de la subvención solicitada en la misma proporción en que haya sido modificado el presupuesto de gasto. Así se fijará el presupuesto reconocido. En estos casos, el presupuesto de gasto y la subvención solicitada reconocidos serán, junto con el nivel de financiación propia declarado, la base de referencia para el cálculo de la subvención.

1.2.– Respecto a la puntuación.

a) Con anterioridad a la aplicación del procedimiento de adjudicación, se procederá a la valoración de los proyectos que hayan pasado a la fase de valoración, de acuerdo a los criterios establecidos en el artículo 13.

b) Los proyectos, para seguir adelante en el procedimiento, habrán de obtener setenta (70) o más puntos. En consecuencia, aquellos proyectos que no obtengan la puntuación mínima requerida, no parti-

lortzen duten egitasmoek ez dute diru-laguntzaren banaketan sartzetik izango eta, ondorioz, ez dute diru-laguntzarik hartuko.

c) Puntu horiek onartutako gastu-aurrekontuaren estalpen-indizea zehaztuko dute.

2.– Egitasmo bakoitzari esleitu beharreko laguntza-kopurua zehazteko orduan, 6.6 eta 6.8 artikuluetan finkatutako mugak gordeko dira.

### **13. artikulua.**– Balorazio-irizpideak.

1.– Agindu honen babesean emango diren diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez esleitu dira, betiere, ezarritako mugak errespetatuz eta finkatutako irizpideak erabiliz. Ebazpen-proposamena landu eta diruzko zenbatekoak finkatzeko orduan, zeregin horretarako berariaz eraturako Balorazio-batzordeak honako irizpide eta balio hauek izango ditu kontuan:

#### 1.1.– A multzoa:

– Euskarazko atariak edo web guneak:

a) Finantzaketa-maila propioa: gehienez ere hogeï (20) puntu.

b) Eguneratze plangintzaren eta web gunea ezagutarazteko proposamenaren zehaztasun- eta egokitasun-maila: gehienez ere hogeï (20) puntu.

c) Bisiten edo jasotzaileen kopurua: gehienez ere hamar (10) puntu.

d) Jasotzaileen izaera: gehienez ere hamar (15) puntu.

e) Kalitatea: edukiak, diseinua, berrikuntza edota antzekoekiko balio erantsia, eta ezaugarri teknikoak (erabilitako teknologia, eskainitako zerbitzuak eta web 2.0 teknologia) gehienez ere hogeita hamabost (35) puntu.

– Interneterako euskarazko eduki berriak:

a) Finantzaketa-maila propioa: gehienez ere hogeï (20) puntu.

b) Eduki horiek zabaltzeko edo ezagutarazteko proposamenaren zehaztasun- eta egokitasun-maila: gehienez ere hogeï (20) puntu.

c) Bisiten edo jasotzaileen kopurua: gehienez ere hamar (10) puntu.

d) Jasotzaileen izaera: gehienez ere hamar (15) puntu.

e) Kalitatea: edukiak, diseinua, berrikuntza edota antzekoekiko balio erantsia, edukien kokapena eta ezaugarri teknikoak (erabilgarritasuna eta hizkuntza-baliabideak), gehienez ere hogeita hamabost (35) puntu.

1.2.– B multzoa (softwarea euskaraz sortzea edo eta euskarara lokalizatzea):

a) Finantzaketa-maila propioa: gehienez ere hogeï (20) puntu.

ciparán en el proceso de distribución de las ayudas y, consiguientemente, no recibirán subvención alguna.

c) La puntuación obtenida determinará el índice de cobertura del presupuesto de gasto reconocido.

2.– A la hora de determinar el importe de subvención de cada proyecto, se tendrán en cuenta las limitaciones establecidas en los artículos 6.6 y 6.8.

### **Artículo 13.**– Criterios de valoración.

1.– Las subvenciones adjudicadas al amparo de la presente Orden se otorgarán por el procedimiento de concurso, respetando los límites y aplicando los criterios establecidos. Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, la Comisión de Valoración tendrá en cuenta los criterios y valores siguientes:

#### 1.1.– Grupo A:

– Portales y sitios web en euskera:

a) Nivel de financiación propia: un máximo de veinte (20) puntos.

b) Nivel de concreción e idoneidad del plan de actualización y difusión del sitio web: un máximo de veinte (20) puntos.

c) Número de personas visitantes o destinatarias: un máximo de diez (10) puntos.

d) Naturaleza de las personas destinatarias: un máximo de quince (15) puntos.

e) Calidad: contenidos, diseño, innovación, valor añadido respecto a proyectos similares, y características técnicas (tecnología utilizada, servicios ofertados y tecnología web 2.0), un máximo de treinta y cinco (35) puntos.

– Nuevos contenidos en euskera para Internet:

a) Nivel de financiación propia: un máximo de veinte (20) puntos.

b) Nivel de concreción e idoneidad del plan de difusión de dichos contenidos web: un máximo de veinte (20) puntos.

c) Número de personas visitantes o destinatarias: un máximo de diez (10) puntos.

d) Naturaleza de las personas destinatarias: un máximo de quince (15) puntos.

e) Calidad: contenidos, diseño, innovación, valor añadido respecto a proyectos similares, ubicación de los contenidos y características técnicas (utilidad y recursos lingüísticos), un máximo de treinta y cinco (35).

1.2.– Grupo B (localización y/o creación en euskera de software):

a) Nivel de financiación propia: un máximo de veinte (20) puntos.

b) Merkaturatzea eta banaketa: gehienez ere hogeii (20) puntu.

c) Jasotzaileen izaera: gehienez ere hogeii (20) puntu.

d) Kalitatea: Erabilitako teknologia, egitasmoaren izaera, erabilgarritasuna eta hizkuntza-baliabideak, oportunitate-maila edo interesa: gehienez ere berrogeii puntu (40) puntu.

2.- Aurreko puntuan finkatutako irizpideetako bakoitzari dagozkion puntuaren zehaztapena, Balorazio-batzordeak multzo bakoitzerako berariaz prestatutako ponderazio-taula batean jasoko da. Taula hori Balorazio-batzordeak Hizkuntza Politikarako sailburuordeari egin beharreko ebazpen-proposamenari erantsiko zaio.

#### **14. artikulua.**– Balorazio-batzordea.

1.- Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, berariazko Balorazio-batzorde bat osatuko da.

2.- Balorazio-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria edo bere ordezkoa, batzordearen buru izango dena.

b) Foru administrazioetako hizkuntza politikaren ardura duten sailetako teknikari bat, gutxienezko maila zerbitzu buruarena delarik, edo bere ordezkoa.

c) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako EBPNren jarraipenerako arduraduna, edo bere ordezkoa.

d) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuko arduraduna edo bere ordezkoa.

e) Euskararen Aholku Batzordeko kide bat.

f) IKT alorreko aditu bat.

g) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikari bat edo bere ordezkoa. Horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

3.- Balorazio-batzordeak, laguntza-mota honetan finkaturiko irizpideak eta mugak kontuan izanik, ebazpen-proposamena landuko du eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeari aurkeztuko dio, honek, zuzen eta bidezkoa joz gero, behin betiko ebazpena har dezan. Aipaturiko proposamenak, honako atal hauek izango ditu gutxienez:

a) Deialdian finkaturiko baldintzak bete ez izanagatik baztertuak izan diren eskabideen zerrenda eta horietako bakoitza baztertu izanaren zioa.

b) Comercialización y distribución: un máximo de veinte (20) puntos.

c) Naturaleza de las personas destinatarias: un máximo de veinte (20) puntos.

d) Calidad: tecnología utilizada, naturaleza del proyecto, utilidad y recursos lingüísticos, nivel de oportunidad o interés: un máximo de cuarenta (40) puntos.

2.- La concreción de los puntos correspondientes a cada uno de los criterios establecidos en el punto anterior se recogerá en una tabla de ponderación creada a tal efecto por la Comisión de Valoración para cada grupo. Dicha tabla se adjuntará a la propuesta de resolución que la Comisión de Valoración remita a la Viceconsejera de Política Lingüística.

#### **Artículo 14.**– Comisión de Valoración.

1.- Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración.

2.- La Comisión de Valoración estará integrada por los siguientes miembros:

a) El Director de Investigación y Coordinación Lingüística o persona que le sustituya, que presidirá la Comisión.

b) Un técnico o técnica del departamento competente en política lingüística de la administración foral, cuyo nivel mínimo sea de jefatura de servicio, o su suplente.

c) La responsable del Seguimiento de EBPN (Plan General de Promoción del Uso del Euskera) de la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística o persona que le sustituya.

d) La responsable del Servicio de Estandarización de la Dirección de Promoción del Euskera o persona que le sustituya.

e) Un miembro del Consejo Asesor del Euskera.

f) Una persona experta en tecnologías de la información y la comunicación.

g) Una técnica de la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística. Actuará como secretaria, con voz pero sin voto.

3.- La Comisión de Valoración, habida cuenta de los criterios y límites establecidos en la presente modalidad de ayuda, elaborará y presentará una propuesta de resolución a la Viceconsejera de Política Lingüística con el fin de que dicte, si la considera oportuna, la resolución definitiva. Dicha propuesta contendrá, como mínimo, los siguientes apartados:

a) Listado de las solicitudes que hayan sido desestimadas por no cumplir los requisitos de la convocatoria, explicitando en cada caso el motivo de la desestimación.

b) Diruz lagundutako egitasmoak; onartutako gastu-aurrekontua; lortutako puntuak, osotara eta atalkakoa; eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

c) Gutxieneko puntuak lortu ez izanagatik diru-laguntzarik gabe utzitako egitasmoak eta horiek lortutako puntuazioa, osotara eta atalkakoa.

**15. artikulua.**– Ebazpena.

1.– Balorazio-batzordearen proposamena ikusita, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak agindu honek arautzen dituen diru-laguntzak esleitzeko ebazpena emango du. Ebazpen hori, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik sei hilabeteko epean interesdunei jakinaraziko die.

2.– Dena dela, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da herritar orok jakin dezan.

3.– Sei hilabeteko epea amaitu eta interesdunak inolako jakinarazpenik jaso ez badu, eskabidea gaitzetsizat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4.– Laguntza-eskatzailearen bat hartutako ebazpenarekin ados ez bada eta gora jo nahi badu, eskatzaile horrek aukera izango du Kulturako sailburuari gorako errekurtsioa aurkezteko, ebazpena berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

**16. artikulua.**– Diru-laguntzaren onarpena.

1.– Diru-laguntza esleitzeko ebazpena jakinarazten den egunean hasi eta ondorengo hamar (10) egun baliouduneko epean diru-laguntzaren eskatzaileak berariaz eta idatziz uko egin ezean, diru-laguntza onartutzat emango da. Diru-laguntzari uko egiteko, esleipendunak Agindu honekin batera datorren IV. eranskina erabil dezake.

**17. artikulua.**– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean (1/1997 Legegintza Dekretuak onartua) finkaturiko betebeharrak gain, honako betebeharrak hauek ere izango dituzte:

a) Diru-laguntza eskabide-orrian zehaztutako helburu zehatzerako erabili beharko dute.

b) Eskabide-orrian aurreikusitako egitasmoa bere osotasunean gauzatu beharko dute.

c) Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen xedearan

b) Proyectos subvencionados; presupuesto de gasto reconocido; puntuación obtenida, tanto parcial como total; y cuantía de la subvención.

c) Proyectos no subvencionados por no haber alcanzado la puntuación mínima: puntuación, tanto parcial como total, obtenida.

**Artículo 15.**– Resolución.

1.– La Viceconsejera de Política Lingüística, en el plazo de seis meses contados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y a la vista de la propuesta de la Comisión de Valoración, notificará la resolución de adjudicación de las subvenciones a las entidades interesadas.

2.– Sin perjuicio de lo anterior, dicha resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco para conocimiento general.

3.– De conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, si una vez transcurrido el plazo de seis meses la solicitante no hubiera recibido notificación alguna, la solicitud correspondiente se considerará desestimada.

4.– Si alguna solicitante de la subvención no estuviera de acuerdo con la resolución adoptada y quisiera recurrirla, dispondrá de un plazo de un (1) mes contado a partir del día siguiente a su notificación expresa para interponer recurso de alzada ante la Consejera de Cultura.

**Artículo 16.**– Aceptación de la subvención.

1.– Si en el plazo de diez (10) días hábiles a partir del siguiente a la recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención a las personas físicas o jurídicas beneficiarias, éstas no renuncian expresamente por escrito a la misma, se entenderá que la subvención queda aceptada. Para tramitar dicha renuncia, la adjudicataria podrá utilizar el anexo IV adjunto a esta Orden.

**Artículo 17.**– Obligaciones de la persona física o jurídica beneficiaria.

Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas por la presente Orden deberán cumplir las obligaciones contempladas en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como los siguientes requisitos:

a) Deberán utilizar la subvención para el objeto señalado en el impreso de solicitud.

b) Deberán desarrollar íntegramente el proyecto previsto en el impreso de solicitud.

c) Deberán facilitar cuanta información le sea requerida por la Oficina de Control Económico y el

fiskalizazio-funtzioak betetze aldera eskatutako informazio guztia eman beharko dute.

d) Hizkuntzaren kalitatea bermatzea guztiz garrantzizkotzat jotzen denez gero, Euskaltzaindiak emandako arau eta gomendioak aintzakotzat hartu eta beteko dituzte. Hori betetzeko eta euskararen zuzentasuna eta egokitasuna bermatzeko, hizkuntza-egaztuta ziurtatuta duen pertsona bat izendatuko dute.

e) Indarrean dauden lege eskakizunak bete beharko dituzte jabego intelektualari, egile-eskubideei, lege-gordailuari, banaketari eta abarri dagokienez.

f) Laguntza-gai diren egitasmoek giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetasun-balioak errespetatu beharko dituzte. Ondorioz, egitasmo horiek ezin izango dute herritarrei iraingarri gerta dakiekeen ikur edo elementurik jaso, ezta beren duintasunari kalte egiten dieten edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen duten ikur edo elementurik ere.

g) Adierazpen- eta informazio-askatasunari begirunea erakustea. Horretarako, nor bere deontologiako arauak beteko ditu eta, aldi berean, politika-aniztasuna eta politika-, gizarte- eta kultura-taldeei zor zaien aukera-berdintasuna bermatuko duen informazio egiazkoa eta objektiboa sustatuko du.

h) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.

i) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren menpeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako babesaren berri adieraztea, betiere 22. artikuluan esandakoaren arabera.

j) B multzoko egitasmoei dagokienez, dirulaguntza jaso duen eskatzaileak, egitasmoa behin amaituta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako IKTen inbentarioan alta eman behar du.

### **18. artikulua.**– Diru-laguntzaren ordainketa.

1.– Agindu honetan oinarrituz emandako dirulaguntzen ordainketak bi eratara egingo dira, jasotako diru-laguntzaren zenbatekoaren arabera:

1.1.– Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoak hama-bi mila (12.000) euro gainditzen ez duenean, dirulaguntza bere osotasunean ordainduko da ordainketa bakar baten bidez, onarpena jasotzen den egunean hasi eta bi (2) hilabeteko epean. Diru-laguntzaren justifikazioa dagokion moduan egin beharko da.

1.2.– Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoak hama-bi mila (12.000) euro gainditzen duenean, ordainketa bi zatitan egingo da:

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

d) Siendo de suma importancia garantizar la calidad del euskera, se observarán y cumplirán las normas y recomendaciones dictadas por Euskaltzaindia. En este sentido, designarán una persona con probado conocimiento del euskera, que velará por la corrección e idoneidad del mismo.

e) Deberán cumplir la legalidad vigente en todo lo relativo a la propiedad intelectual, derechos de autor, depósito legal, distribución, etcétera.

f) Los proyectos objeto de subvención deberán respetar los derechos humanos y los valores de convivencia entre personas, y, en consecuencia, dichos proyectos no podrán incorporar símbolos o elementos que puedan resultar ofensivos para los ciudadanos y las ciudadanas, vulneren su dignidad o sugieran justificación de la violencia.

g) Respetar la libertad de expresión e información. Para ello, cumplirá su propio código deontológico y, al mismo tiempo, promocionará la pluralidad política y la información objetiva y verídica que garantice la igualdad de oportunidades debida a los distintos colectivos políticos, sociales y culturales.

h) En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, no utilizará lenguaje sexista. En cuanto a los roles de hombres y mujeres, garantizará que no haya usos estereotipados.

i) Mencionar el patrocinio de la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, de conformidad con lo establecido en el artículo 22.

j) Respecto a los proyectos del grupo B, la solicitante que haya resultado beneficiada por la subvención, una vez acabado el proyecto, deberá darse de alta en el inventario de IKT (tecnologías de la información y la comunicación) realizado por la Viceconsejería de Política Lingüística.

### **Artículo 18.**– Pago de la subvención.

1.– El pago de las subvenciones concedidas al amparo de esta Orden se realizará de dos formas diferentes:

1.1.– Cuando el importe de la subvención concedida sea inferior a doce mil (12.000) euros, se realizará un único pago por el importe total concedido. Dicho pago se realizará en el plazo de dos (2) meses a partir de la recepción del impreso de aceptación. La justificación de la subvención se realizará en la manera y plazos establecidos al efecto.

1.2.– Cuando el importe de la subvención concedida sea superior a doce mil (12.000) euros, el pago se realizará en dos partes:

a) Lehenengo ordainketan diru-laguntza osoaren ehuneko laurogei (% 80) ordainduko da, onarpena jasotzen den egunean hasi eta bi (2) hilabeteko epean.

b) Bigarren ordainketan, hala badagokio, gainerako ehuneko hogeia (% 20) ordainduko da, diru-laguntza justifikatzeko agiri guztiak jaso eta ontzat eman ondoren, hilabeteko epean.

### **19. artikulua.**– Ez-betetzeak.

1.– Betebeharrak bete gabetzat joko dira honako kasu hauetan:

a) Jasotako diru-laguntza, osorik zein zatika, agindu honetan zehaztutakoez beste jardueretarako erabiltzea.

b) Honako Agindu honen 17. artikuluan zehaztutako betebeharrak ez betetzea.

c) Hala badagokio, kitapen-ebazpenak zehaztutako kopurua ez itzultzea horretarako emandako epean.

d) Beste xedapen batean, orokorrean, nahitaezkoztzat jotzen diren gainerako egitekoak ez betetzea.

2.– Ez-betetzereen bat gertatuz gero, jasotako dirua eta horren legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartua) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan adierazitakoa betez eta horretarako ezartzen den prozedurari jarraituz.

### **20. artikulua.**– Diru-laguntzaren justifikazioa.

1.–Esleututako diru-laguntzaren zenbatekoa edozein delarik ere, diru-laguntzaren onuradun orok diruz lagundutako egitasmoaren gauzatzea justifikatu behar du, ezinbestean, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzaren aurrean. Justifikazioari ekiteko, diru-laguntza esleitzeko orduan erabilitako gastu-aurrekontu onartua erabiliko da.

2.– Justifikazioa aurkezteko epea, 2012ko urtarrilaren 31n bukatuko da.

3.– Aipaturiko justifikazioa justifikazio-kontu erraztuaren arabera egingo da. Justifikazio-kontu erraztuak, zinpeko aitorpenaren izaera izango duenak, honako informazio hau jasoko du:

a) Burututako jardunari eta lortutako emaitzei buruzko txostena (V. eranskina).

b) Diruz lagundutako egitasmoari dagokion behin betiko balantze ekonomikoa (VI. eranskina).

c) Diruz lagundutako egitasmoari dagozkion gastuen zerrenda sailkatua (VII. eranskina).

a) En el primer pago se abonará el ochenta por ciento (80%) de la subvención total, en el plazo de dos (2) meses a partir del día de recepción del impreso de aceptación.

b) En el segundo pago, si así procede, se abonará el veinte por ciento (20%) restante en el plazo de un (1) mes a partir del día que se reciba y se apruebe la documentación completa para la justificación de la subvención.

### **Artículo 19.**– Incumplimientos.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La aplicación total o parcial de la subvención percibida para actividades distintas a las contempladas en la presente Orden.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 17 de la presente Orden.

c) La no devolución de la cuantía que, en su caso, se señale en la resolución de liquidación de la subvención, en el plazo para ello establecido.

d) El incumplimiento de las obligaciones establecidas con carácter general en cualquier otra disposición.

2.– La constatación de la existencia de alguno de los supuestos contemplados en el número anterior del presente artículo determinará, según lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como, en su caso, en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

### **Artículo 20.**– Justificación de la subvención.

1.– Toda persona física o jurídica beneficiaria, independientemente del importe de la subvención adjudicada, deberá, necesariamente, justificar ante la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística la ejecución del proyecto subvencionado por el importe del presupuesto de gasto reconocido utilizado como base para la concesión de la subvención.

2.– El último día para la presentación de la justificación será el 31 de enero de 2012.

3.– Dicha justificación se realizará mediante cuenta justificativa simplificada. La cuenta justificativa simplificada, que tendrá carácter de declaración jurada, contendrá la siguiente información:

a) Una memoria de la actividad realizada y de los resultados obtenidos (anexo V).

b) Presupuesto equilibrado definitivo del proyecto subvencionado (anexo VI).

c) Una relación clasificada de los gastos relativos al proyecto subvencionado (anexo VII).

d) Diru-laguntza ematen duen organoak behar adina frogagiri eskatuko du, diru-laguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko. Horretarako, unitate moneta laginketa teknika erabiliko du.

e) Zerga-betebeharrak kitatuta dituela adierazten duen ziurtagiri eguneratua.

f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak kitatuta dituela adierazten duen ziurtagiri eguneratua.

g) Produkzioa: A multzoko egitasmoen kasuan, dagokion helbide elektronikoa; B multzoko egitasmoen kasuan, ale bat edo, izaera publikoa ez duten egitasmoen kasuan, sarbide-kode bat.

4.- Anomalia edo irregulartasunen bat ikusiz gero, Agindu honetako 19. eta 21. artikuluetan finkatutakoari ekingo zaio automatikoki.

5.- Jarraipen-batzordea.

Justifikaziorako aurkeztutako dokumentazio guztia aztertzeko eta ontzat emateko jarraipen-batzordea eratu da. Azterketa horren ondorioz bideratu beharreko ordainketak edota likidazio-ebazpenaren inguruko proposamenak Hizkuntza Politikarako sailburuordeari egingo dizkio. Honako hauek osatuko dute jarraipen-batzordea:

– Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru.

– EBPNren jarraipenerako arduraduna.

– Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikari bat.

**21. artikulua.**– Ebazpenaren aldaketa eta kitapen-ebazpena.

1.- Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretako bat aldatzen bada, diru-laguntzaren helburua betetzat jotzen denean, diru-laguntza eman duen ebazpena ere aldatu ahal izango da. Hori dela eta, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak bidezko likidazio-ebazpena emango du, eta, ebazpen horretan, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa berregokituko da.

2.- Honako Agindu honen pentzutan emandako diru-laguntzaren onuradunak eman eta eskuratutako zenbatekoa eta legez aplikagarriak izan daitezkeen interesak itzuli egin beharko ditu, honako kasu hauetakoren bat emanez gero:

a) Diru-laguntza eskatu eta eman zen helburuetarako erabili beharrean beste helburu batzuetarako erabiltzea.

d) El órgano que adjudica la subvención podrá solicitar a la persona física o jurídica beneficiaria tanta documentación, información, justificantes y facturas estime oportuno, con el fin de obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención. Para ello utilizará la técnica de muestreo de la unidad monetaria.

e) Certificado actualizado, que acredite que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.

f) Certificado actualizado, que acredite que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social.

g) Producción: en los proyectos pertenecientes al grupo A, la dirección electrónica correspondiente; en los proyectos pertenecientes al grupo B, un ejemplar o un código de acceso en el caso de los proyectos que no tienen carácter público.

4.- La detección de cualquier anomalía o irregularidad conllevará la aplicación automática de los artículos 19 y 21 de la presente Orden.

5.- Comisión de Seguimiento.

Al objeto de analizar y validar la documentación presentada para justificar la subvención recibida, se constituirá una comisión de seguimiento. Dicha comisión, una vez analizada la documentación presentada, propondrá a la Viceconsejera de Política Lingüística proceder al pago correspondiente o a dictar la correspondiente resolución de liquidación. La composición de la comisión de seguimiento es la siguiente:

– El director de Investigación y Coordinación Lingüística, en calidad de jefe de la comisión.

– La responsable de EBPN (Plan General de Promoción del uso del euskera).

– Una técnica de la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística.

**Artículo 21.**– Modificación de la resolución y resolución de liquidación.

1.- Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión de subvenciones. A estos efectos la Viceconsejera de Política Lingüística dictará la oportuna resolución de liquidación en la que se reajustará el importe de la subvención concedida.

2.- La beneficiaria de una subvención vendrá obligada a reintegrar la cuantía concedida y percibida más los intereses legales que resultaren de aplicación, si se diera alguno de estos casos:

a) Cuando, en vez de utilizar la subvención para el destino específico para el que se solicitó y concedió, se utilice para otros destinos.

b) Diru-laguntzaren jatorri izan zen ekintza ez gauzatzea.

c) Diru-laguntza eskatu zen helburu jakinetarako erabili dela ez justifikatzea.

d) Oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan, edo honako Agindu honetan ezartzen diren eginbeharrak ez betetzea.

Aurreko hori 698/1991 Dekretuan, abenduaren 17koan, esandakoaren arabera egingo da.

**22. artikulua.**– Kultura Sailaren aipamena.

Laguntza-mota honen bidez diruz lagundutako egitasmo orok Kultura Sailaren menpeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako babesaren berri adierazi beharko du egitasmoaren argitan kaleratutako euskarri guztietan. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua agerrarazi behar dute. Nolanahi ere, diru-laguntza esleitzuz eman beharreko ebazpena eman aurretik gauzatutako egitasmoak betebeharrak hori betetzetik kanpo egongo dira.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraituz eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoaren arabera, deialdi honen izapideketan jasotako datu pertsonalak –parte hartzaileek baimena emango dute datuok tratatzeko eta argitaratzeko– fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau eta berarekin loturiko beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzeko helburuz, bai eta bertan parte hartzen dutenei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduraduna. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatu ahalko da, horretarako Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz). Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak, halaber, beren onspena ematen dute fitxategiko datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publikoei lagatzeko, deialdiaren helburuekin bat datozen xedeetarako baldin bada, eta baimena ematen diote Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari beste erakunde batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna.

b) Cuando no realice la actuación que dio origen a la subvención.

c) Cuando no justifique su aplicación a los fines determinados para los que se interesó.

d) Cuando, en general, incumpla las obligaciones establecidas en el artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, o en la presente Orden.

Lo anterior se realizará de acuerdo a lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

**Artículo 22.**– Mención del Departamento de Cultura.

Todo proyecto subvencionado a través de la presente modalidad de ayuda deberá mencionar el patrocinio de la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura en todos los soportes que se deriven del proyecto. Consecuentemente, deberá figurar el logotipo normalizado del Gobierno Vasco. No obstante, aquellos proyectos ejecutados antes de que se dicte la resolución de adjudicación de las subvenciones estarán exentos de esta obligación.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. El o la responsable de este fichero es la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística del Departamento de Cultura. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura, dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria y autorizan a la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.



AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

**Bigarrena.**– Honako Agindu honetan aurre ikusitako diru-laguntzen eraginkortasuna Europako Batzordeak baimendua izan edo baimendutzat ematearen menpe dago.

**Hirugarrena.**– Agindu honetako euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean interpretazio-azirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko da aintzat.

**Laugarrena.**– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean izango du eragina agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 20a.

Kulturako sailburua,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

**Segunda.**– La efectividad de las ayudas contempladas en la presente Orden queda condicionada a que el régimen de ayudas sea autorizado o deba entenderse autorizado por la Comisión Europea.

**Tercera.**– De surgir en esta Orden algún problema de interpretación entre los textos en euskera y castellano, se adoptará el texto en euskera como referencia para solucionar dicha eventualidad toda vez que su redacción original ha sido realizada en dicho idioma.

**Cuarta.**– La presente Orden surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2011.

La Consejera de Cultura,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AZALPENAK

---

Eskabidea egiteko, eskatzaileak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1.- Eskabide-orria (I. eranskina).

- A multzoko egitasmoa bada: atal guztiak bete behar dira, 5. atala izan ezik.
- B multzoko egitasmoa bada: atal guztiak bete behar dira, 4. atala izan ezik.

2.- Banku-datuak (II.A. eranskina).

- Orain baino lehenago Eusko Jaurlaritzarekin aritu ez diren eskatzaileek alta hartu beharko dute, «Hirugarrenaren datuen alta» izeneko inprimakia beteaz (II.A. eranskina).
- Alta hartuta egon arren, banketxez edo/eta kontu korrontez aldatu duten eskatzaileek aldaketak sartzeko eranskin bera bete beharko dute (II.A. eranskina).

3.- Eskabide-orriarekin batera honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu, ezinbestean, eskatzaileak:

- a) Zerga-betebeharrak kitatuta dituela adierazten duen ziurtagiri eguneratua, gehienik ere sei (6) hilabete lehenago egindakoa eta organo eskumendunak emana.
- b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak kitatuta dituela adierazten duen ziurtagiri eguneratua, gehienik ere sei (6) hilabete lehenago egindakoa eta organo eskumendunak emana. Agiri honek beharrezko diren zigilu eta sinadurak izan beharko ditu.
- c) Burutu nahi den egitasmoa burutu ahal izateko jabego intelektualari loturiko elementuen ustiapen-eskubideak beharrezkoak direnean, eskubide horien jabe dela ziurtatuz entitatearen izenean ari den legezko ordezkariak sinatutako zinpeko aitortpena.

Agiri horiez gain:

d) Pertsona fisikoa baldin bada:

- d.1.- NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- d.2.- Ekonomi Jardueraren gaineko Zergari dagokion izen-emate agiriaren fotokopia.
- d.3.- Autonomoen Erregimenean edo, hala badagokio, dagokion lan-mutualitatean alta emanda dagoelako agiriaren fotokopia.

e) Pertsona juridikoa baldin bada:

- e.1.- Entitate eskatzailearen legezko ordezkariaren NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- e.2.- Entitate eskatzailearen legezko ordezkariak lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratuaren fotokopia.
- e.3.- IFZaren fotokopia.
- e.4.- Entitate eskatzailearen eratze-eskrituraren fotokopia. Elkarteen kasuan, eratze-aktarena.

- e.5.- Entitateko estatutuen fotokopia, edo entitate eskatzailearen jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen agiriarena.
- e.6.- Eratze-eskriurak edota estatutuak dagozkion Erregistro Publikoan inskribatuta dagoela egiaztatzen duten ziurtagirien fotokopiak.

Entitateak ez ditu aurkeztu behar izango e.4, e.5 eta e.6 idatzi-zatietan adierazitako agirien fotokopiak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Erregistroan dagoen fundazioa edo elkartea bada. Izan ere, kasu honetan Administrazioak ofizioz egiaztatu ahal izango du Erregistroan dagoela, eta nahikoa izango da entitate eskatzaileak hori adieraztea I. eranskinean.

Zerga-betebehar zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienez, jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

4.- Aurreko puntuan zehaztutako 3.d), eta 3.e) puntuetako agirietakoren bat edo gehiago Administrazio honetan lehenago ere aurkeztua izan bada eta indarrean jarraitzen badu, eskatzaileak Agindu honi lotutako III. eranskina bete eta aurkez dezake agiri horien ordez.

5.- Eskatzaileak eskabide-orri bat baino gehiago aurkezten duenean, erantsi beharreko dokumentazioa, artikulua honetako 3.c) puntuan adierazitakoa izan ezik, bakarria izan daiteke eskabide-orri guztientzat.

6.- Pertsona fisiko edota juridiko pribatu batek baino gehiagok gauzatzekoa den egitasmoaren kasuan, kontuan izan behar da Aginduaren 9.5. artikuluan ezarritakoa.

#### LEGE-OHARRA

---

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak honako hau adierazi nahi dizu: eskabide-orri honetan jarri dituzun datu pertsonalak, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikopean dagoen fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko. Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako. Fitxategia Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak erabiliko du, bakarrik, berak sustatutako diru-laguntzak kudeatzeko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara idatzi beharko duzu: Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

OBSERVACIONES SOBRE LA DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

---

Para presentar la solicitud, la solicitante deberá presentar los siguientes documentos:

1.- Impreso de solicitud (anexo I).

- Proyectos del grupo A: se deberán cumplimentar todos los apartados, excepto el apartado 5.

- Proyectos del grupo B: se deberán cumplimentar todos los apartados, excepto el apartado 4.

2.- Datos bancarios (anexo II.A).

- Todas aquellas solicitantes que con anterioridad no hayan actuado ante el Gobierno Vasco deberán darse de alta cumplimentando, a tal efecto, el impreso «Alta de Datos Tercero Interesado» (anexo II.A).

- Todas aquellas solicitantes que, una vez dadas de alta, hayan modificado sus datos bancarios, habrán de cumplimentar el mismo anexo (anexo II.A).

3.- Las solicitantes de la ayuda deberán presentar junto al impreso de solicitud, necesariamente, los documentos siguientes:

a) Certificado actualizado, con una antigüedad no superior a seis (6) meses y expedido por el órgano competente, que acredite que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.

b) Certificado actualizado con una antigüedad no superior a seis (6) meses y expedido por el órgano competente, que acredite que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social. Este documento deberá tener los sellos y firmas que le correspondan.

c) En caso de que sean obligatorios los derechos de explotación de los elementos vinculados a la propiedad intelectual para poder desarrollar el proyecto en cuestión, declaración jurada firmada por la persona representante que actúe en nombre de la entidad, acreditativa de la titularidad de dichos derechos.

Además de los documentos citados:

d) Cuanto se trate de personas físicas:

d.1.- Fotocopia del DNI o pasaporte.

d.2.- Fotocopia del documento de inscripción en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

d.3.- Fotocopia del documento que acredite el alta en el Régimen de Autónomos o, en su caso, mutualidad profesional correspondiente.

e) Cuando se trate de personas jurídicas:

e.1.- Fotocopia del DNI o pasaporte del o de la representante legal de la entidad solicitante.

e.2.- Fotocopia del certificado actualizado que acredite la capacidad legal de la persona representante de la entidad solicitante.

e.3.- Fotocopia del NIF de la entidad.

e.4.- Fotocopia de la escritura de constitución de la entidad solicitante, o el del acta de constitución en el caso de las asociaciones.

- e.5.- Fotocopia de los estatutos de la entidad o del documento en el que consten las normas por las que se regula su actividad.
- e.6.- Fotocopia del certificado de la inscripción en el Registro Público que corresponda, tanto de de la escritura de constitución como de los estatutos de la entidad.

La entidad solicitante no tendrá obligación de presentar los documentos solicitados en los apartados e.4, e.5 y e.6 en el caso de que se trate de alguna fundación o asociación que figure en el Registro de la Administración General de la Comunidad Autónoma Vasca. De hecho, en ese caso la Administración podrá comprobar de oficio que la entidad figura en dicho Registro. Para ello, será suficiente con que la entidad solicitante indique esta circunstancia en el anexo I.

En cuanto al cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, la solicitante deberá aportar cuantas certificaciones sobre este extremo se le exijan durante el procedimiento.

4.- Cuando con anterioridad se hayan presentado en esta Administración uno o más de los documentos mencionados en los apartados 3.d) y 3.e) del punto anterior, la solicitante deberá cumplimentar el anexo III que acompaña a esta Orden.

5.- En caso de que la entidad solicitante presente más de un impreso de solicitud, la documentación que se adjunte podrá ser única para todas las solicitudes, excepto la señalada en el apartado 3.c de este artículo.

6.- En el caso de proyectos que se desarrollen conjuntamente por más de una persona física o jurídica privada, habrá que tener en cuenta lo establecido en el artículo 9.5 de la Orden.

#### NOTA LEGAL

---

El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos de este impreso de solicitud van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal. El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios, responsable de dicho fichero, c/ Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

I. ERANSKINA

<b>2011 IKT</b>	<b>INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIETAN EUSKARA SUSTATU, GARATU EDOTA NORMALIZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK</b>	<b>HIZKUNTZA IKERKETA ETA KOORDINAZIORAKO ZUZENDARITZA</b>
---------------------	---	--

ESKABIDE-ORRIA

Eskatzaileari buruzko datuak

Pertsona fisiko edo juridikoaren izena:		IFZ edo NAN:		
Helbidea				
Kalea:	Zenbakia:	Solairua:	Posta-kodea:	Herria:
Legezko ordezkariaren izen-abizenak:			NAN:	
Entitate eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Erregistroan dagoen fundazio edo elkarte da?				<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez
Jakinarazpenak eta abisuak jasotzeko hizkuntza				
<input type="checkbox"/> Euskaraz		<input type="checkbox"/> Gaztelaniaz		

Harreman-bideak

Izen-abizenak:		
Telefonoa:	Faxa:	E-posta helbidea:

Egitasmoa

Egitasmoaren izena (labur-labur, identifikatzeko):		
Mota	<input type="checkbox"/> A multzoa	<input type="checkbox"/> B multzoa

Adostasuna

Goian adierazitako pertsona fisiko edo entitatearen legezko ordezkaria naizen aldetik, eskabide-orri honetan emandako argibide eta datuak egiazkoak direla adierazten dut. Orobat, Kultura Sailak 2011. urteko deialdian ezarri dituen baldintzen jakinaren gainean egonik, berauek zuzen betetzeko asmo sendoa adierazten dut. Halaber, zin egiten dut Agindu honetako 3.2. eta 3.3. artikuluan aurre ikusitako kausetan murgildu gabe nagoela.

Azkenik, Araba I, II, III (CR 48/99, CR 49/99, CR 58/00); Bizkaia I, II, III (CR 52/99, CR 54/99, CR 60/00); Gipuzkoa I, II, III (CR 50/99, CR 53/99, CR 59/00) diru-laguntzei dagokienez: zin egiten dut legez ordezkatzen dudun erakundeak/pertsonak ez duela jaso aipatutako legez kanpoko eta bateraezinak diren laguntza fiskalik edo, diru-laguntza horien onuradun izanda, itzuli egin dituela, dagozkion interesak barne.

Lekua: Data:	Zigilua:	Sinadura (Pertsona fisikoarena edo entitateko legezko ordezkariarena):
-----------------	----------	--

1.- Eskatzailearen baliabideak.

1.1.- Eskatzailearen izaera: esperientzia, bermea eta baliabide teknikoak zein giza baliabideak.

1.2.- Elkarlana. Egitasmoa gauzatzeko orduan beste pertsona fisiko edota juridiko pribatu batekin elkarlanean arituz gero, zehaztu norekin eta elkarlanaren nondik norakoa, bai antolaketan bai diru-kontuetan.

1.3.- Egitasmoaren euskararen zuzentasuna eta egokitasuna bermatuko dituen arduraduna (izen-abizenak, prestakuntza eta eskarmentua).

1.4.- Egitasmoa gauzatuko duten norbanakoak (kontuan hartu atal hau zuzenean lotuta dagoela, batetik, aurrekontuko langile-gastuekin, eta bestetik, aurrekontuko profesional beregainen zerbitzuei egotzitako gastuekin).

1.4.1.- Pertsona fisiko nahiz juridiko pribatuaren baitako norbanakoak (nomina bidez ordaindu beharrekoak).

Egitakoa	Izen-abizenak	Egotzitako ordu-kopurua	Langile-gastua (€)
Egitasmoaren kudeaketa	- -	- -	- -
Analisi informatikoa	- -	- -	- -
Programazio informatikoa	- -	- -	- -
Diseinu grafikoa	- -	- -	- -
Erredakzioa	- -	- -	- -
Itzulpenak	- -	- -	- -
Administrazioa	- -	- -	- -
Besterik (izenaren ondoan, zehaztu gauzatu beharreko lan-mota)	- - -	- - -	- - -
Orduak guztira (bat etorri behar du adierazitako gastu-aurrekontu ataleko langile-gastuetan adierazitakoarekin, eranskin honetako 2.1 puntuan)			

1.4.2.- Pertsona fisiko nahiz juridiko pribatuaren baitakoak ez diren norbanakoak (profesional beregainak).

Egitakoa	Izen-abizenak edo enpresaren izena	Egotzitako ordu-kopurua	Gastua (€)
Egitasmoaren kudeaketa	- -	- -	- -
Analisi informatikoa	- -	- -	- -
Programazio informatikoa	- -	- -	- -
Diseinu grafikoa	- -	- -	- -
Erredakzioa	- -	- -	- -
Itzulpenak	- -	- -	- -
Administrazioa	- -	- -	- -
Besterik (izenaren ondoan, zehaztu gauzatu beharreko lan-mota)	- - -	- - -	- - -
Orduak guztira (bat etorri behar du adierazitako gastu-aurrekontu ataleko «profesional beregainen zerbitzuak» atalean adierazitakoarekin, eranskin honetako 2.1 puntuan, Funtzionamendu-gastuetan)			



2.- Adierazitako aurrekontua.

2.1.- Adierazitako gastu-aurrekontua		€
Zer		€
Langile-gastuak (Nomina eta Gizarte Segurantzako TC-1 eta TC-2 agirien bidez justifikatzen direnak)	Ordainsariak	
	Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	
	Beste gastu sozial batzuk	
	<b>Langile-gastuak guztira</b>	€
Funtzionamendu-gastuak	Alokairuak	
	Zergak	
	Argindarra	
	Telefonoa	
	Ura	
	Posta eta mezularitza	
	Garbiketa	
	Bulego-materiala	
	Lokomozioa eta egonaldiak	
	Profesional beregainen zerbitzuak	
	Bestelako zerbitzuak	
	<b>Funtzionamendu-gastuak guztira</b>	€
Produkzio-gastuak		
	<b>Produkzio-gastuak guztira</b>	€
Bestelakoak		
	<b>Bestelakoak guztira</b>	€
<b>Adierazitako gastuak guztira</b>		€

2.2.- Adierazitako sarrera-aurrekontua		€
Zer		€
Finantzaketa propioa	Entitate eskatzailearen diru-ekarpenak	
	Zerbitzu-salmentatik eskuratutakoak	
	Produktu-salmentatik eskuratutakoak	
	Publizitatetik eskuratutakoak	
	Entitate pribatuen diru-ekarpenak	
	Besterik	
<b>Finantzaketa propioa guztira</b>		€
Finantzaketa publikoa	Eusko Jaurlaritzako beste edozein Sail	
	Foru Aldundiak	
	Udalak	
	Eudel	
	Estatuko Administrazioa	
	Europako Batzordea	
	Besterik	
	HPSri eskatutakoa	
	<b>Finantzaketa publikoa guztira</b>	€
<b>Adierazitako sarrerak guztira</b>		€

(1) Adierazitako gastu-aurrekontuarekiko zenbatekoa den finantzaketa propioa.

3.- Bestelako diru-laguntzarik eskatu ez izanaren aitortpena (HPSri eskatutako diru-laguntzaz gain bestelako diru-laguntzarik eskatu ez bada, markatu beheko laukia).

Aitortzen dut aurkeztutako egitasmoa garatzeko Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari baino ez diodala diru-laguntza eskatu.

4.- Egitasmoaren azalpen teknikoa - A multzoa.

Oharra: ondoren datozen atalak zehatz-mehatz bete behar dira ezinbestean. Bertan emandako informazioari esker balorazio-batzordeak egokiro ekin ahal izango dio bere egitekoari. Hau da, hemen emandako informazioaren arabera baloratuko da egitasmoa eta balorazio horretan lortutako puntuekin lehiatuko da gainontzeko egitasmoekin. Ez erantsi, mesedez, behar-beharrezkoa ez bada, inongo orririk. Eredu honi jarraitu behar zaio, ezinbestean. Horrez gain, gogorarazi nahi dizugu eranskin honetan jaso behar dituzun datuak 2011. urteari dagozkionak behar dutela izan, horiexek baitira diru-laguntza gaiak.

4.1.- Egitasmoaren helburua.

4.1.1.- Helburu orokorra (aukeratu):

- Euskarazko web gune berria sortu.
- Dagoeneko eginda dagoen web gunea euskaratu.
- Dagoeneko eginda dagoen euskarazko web gunea berritu / eguneratu.
- Interneterako euskarazko eduki berriak sortu.
- Beste zerbait (zehaztu):

4.1.2.- Zein da egitasmo horren bidez lortu nahi duzun helburu zehatza? (azaldu labur).

4.2.- Egitasmoaren deskribapena.

- Egitasmoaren ezaugarri teknologikoak eta diseinua.

\* Ezaugarri teknologikoei dagokienez, honako hauek zehaztu behar dituzu:

<p>Web guneen kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Web gunearen atalak (web gunea berritu edo eguneratu behar denean, zehaztu atal berriak)</li> <li>- Eskainitako zerbitzuak</li> <li>- Web 2.0 teknologia</li> </ul>	<p>Interneterako edukien kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabilgarritasuna</li> <li>- Hizkuntza-baliabideak</li> </ul>
--	---

- Interneteko helbidea:

.....

#### 4.3.- Edukiak.

Egitasmoari testu- edota multimedia-edukien sorkuntza baldin badagokio, bete atal hau. Kontuan hartu: batetik, ez dira diruz lagunduko testu-eduki periodistikoari dagozkien erredakzio-lanak; bestetik, dagoeneko sortutako edukia sarean ipintzeko eskatzen denean diru-laguntza, egokitzapen kostua soilik hartuko da kontuan, hau da, horien erredakzio-lanak ez dira diruz lagunduko.

4.3.1.- Testu-edukiak sortu (zehaztu: kopurua eta ezaugarriak).

4.3.2. Multimedia-edukiak sortu (zehaztu: kopurua eta ezaugarriak).

4.3.3. Itzulpenak. Dagoeneko eginda dagoen web gune bat euskarara itzuli behar denean, honakoak zehaztu:

Web orri kopurua: ..... Itzuli beharreko termino edo hitz kopurua: .....

Itzuli beharreko web orri edo terminoei buruzko beste azalpen batzuk: .....

4.3.4.- Edukiei buruzko beste azalpen edo ohar batzuk:

#### 4.4.- Originaltasuna:

Berrikuntza edota antzekoekiko balio erantsia.

- Euskararen munduan badago antzeko egitasmorik?

- Bai, honako hau edo hauek: .....  
 Ez

- Erantzuna baiezkoa izan bada: antzeko beste egitasmo horiekiko, zein da zure egitasmoak daukan balio erantsia?

- Erantzuna ezezkoa izan bada, esan zertan diren egitasmoari dagozkion originaltasun-zantzuak:

4.5.- Plangintza.

4.5.1.- Egitasmoaren lan-kronograma:

Atazak	Zure egitasmoari dagozkion atazak markatu (beste ataza batzuk ere gehitu ditzakezu taula bukaeran)	Ataza egiteko epea (2011. urteko zein hilabetetan egingo da?)
Egitasmoaren kudeaketa	<input type="checkbox"/>	
Euskarazko bertsioa sortzeko datu-baseak egokitzea	<input type="checkbox"/>	
Euskarazko bertsioa sortzeko eduki-kudeatzailea eta modulu-sistema egokitzea	<input type="checkbox"/>	
Moduluen interfazeak euskarara egokitzea	<input type="checkbox"/>	
Testu-edukiak euskarara itzultzea	<input type="checkbox"/>	
